

Grezia, eurotik irten, krisitik irten

Maiatzaren 6ko hauteskundeek erakutsi dute gehiengoa Greziaren “erreskate” modalitateen kontra dagoela, baita eurogunearren barruan jarraitzearen alde ere. Herrialdea bi esparru politikotan banatuta dago: bat eskuineko Demokrazia Berria alderdiaren inguruan gorpuztu da; bestea Syrizaren inguruan, ezkerrean. Lehenbizikoak erakarri ditu, oraingoz, hoberen dauden horiek. Bigarrena azkar bihurtu da masa-alderdi, beharginak, enpleguak eta klase ertain pobretuak elkartuz.

Bi alderdiek errepikatzen duten arren nahi dutela Atenasek Europako Ekonomia eta Diru Batasunean jarraitzea, ezegonkortasun politikoa erremediorik gabe bultzatzen du herrialdea kanporantz. Maleruski, hori modu kaotikoan egin liteke, banku-izualdi batek (*bank run*) eraginda, adibidez; eta urduri ikusiko genituzke aurreztaileak euren gordailuak berreskuratu nahian. Eszenatoki “kaotiko” baten kasuan ere, guztiok ezagutzen ditugu –gutxienez nazioarteko eztabaidetan– mota horretako irteera baten etapak.

Lehenbizi, Greziak erreskatearen baldintzei ezezkoa ematen die eta ordainketak suspenditzen ditu: huts egiten du. Herrialdeak bere esku hartzen ditu berriz uhalak eta horrek aukera ematen dio krisiari aurre egiteko eta bere ekonomia transformatzeko. Zorraren auditoria egiteko prozesuan sartzen da, komisio baten lanean oinarritua, zeinak aztertuko duen Greziako zorraren jatorria eta bideragarritasun soziala. Jarraian drakma berriz sartzea dator, agian asteburu batean. Atenasek kapitalen fluxuaren gaineko kontrola ezartzen du. Moneta aldaketak ekaitz hirukoitza eragiten du (seguruenik) –monetarioa, bankuetakoa eta komertziala–, eta komeni da haize horietako bakoitza bere aldetik aztertzea.

Plano monetarioan, gertakariak bideratzen dute drakmaren, euroaren eta agian Estatuak emititutako bestelako moneta fiduziario batzuen zirkulazioa, eta horrek bankuen jarduera moldatzen du eta auzi-uholdea dakar. (...)

Bankuek ez daukate eskura Europako Banku Zentralaren likidezia eta hauskorak dira Greziak zor publikoarengatik porrot egin duelako. Nazionalizatu egiten dituzte beraz, eta Gobernuak gordailuentzako garantia bat iragartzen du drakmatan. Antzeko neurriek babesten dituzte atzerrian zorrak dauzkaten enpresak. Azkenik, Greziako bankak bere moneta egiteko gaitasuna berreskuratzen du.

Drakma berriaren truke-balioa hondoratzeak iragartzen digu krisiaren alderdi komertziala. Epe labur eta ertainean, fenomeno horrek Greziaren lehiakortasuna bultzatzen du eta horrek industriari aukera ematen dio barne-merkatuan eta esportazioetan gehiago parte hartzeko. (...) Epe oso laburrean, hala ere, zenbait ondasun gutxitzen dira (petrolio, sendagaiak, janari batzuk). (...)

Epe laburreko kolpe hori da Ekonomia eta Diru Batasunaren tranpatik irteteko ordaindu beharreko prezioa. (...)

Baliteke Greziaren irteerak euroguneko beste herrialde batzuetan antzeko erabakiak azkartzea –erreakzio kate bat litzateke, moneta bakarra sustatzen duten instituzioei eta ideologiari kalte egingo liokeena–. Ezin esan moneta-erakundeak gai izango ote liratekeen horrelako kolpe bat eusteko, baina kontuan hartzeko moduko nahasmen fasean sartuko litzateke Europa. “Moneta indartsuaren” esperimentuaren kolapso handiak kontinente osoan aldaketa politiko eta sozial garrantzitsuak ekar ditzake.



WWW.MISMOUNIVERZA.ORG

Costas
Lapavistas

Le Monde
Diplomatique
(2012ko ekaina)



Epe oso laburrean zenbait ondasun gutxitzen dira (petrolio, sendagaiak, janari batzuk). (...) Epe laburreko kolpe hori da Ekonomia eta Diru Batasunaren tranpatik irteteko ordaindu beharreko prezioa

